



PRENTSA-OHARRA

I. Zabalguneko zirkulazioa berrantolatzeko lanak Yanguas y Mirandara heldu dira, Aita Moret eta Lizarra kaleen arteko bidegurutzeko irlan esku-hartzeko

Lanak egin bitartean, zirkulazio-errei bakarra egongo da Navas de Tolosa kalerantz eta Sarasate pasealekurantz

Aste honetan zehar, I. Zabalguneko zirkulazioa berrantolatzeko egiten ari diren lanak Yanguas y Mirandara helduko dira, hainbat aldaketa egiteko Aita Moret eta Lizarra kaleen arteko bidegurutzean dagoen irlan, Nafarroako Parlamentutik gertu. Lanak egin bitartean, zirkulazio-errei bakarra egongo da ibilgailu zein autobusentzat, Arrotxapea auzorantz.

Gaur egun irla horrek Aita Moret kaletik datorren zirkulazioa banatzeko balio du: ibilgailuak Yanguas y Miranda kaletik Bake plazarantz joan daitezten, edo Sarasate pasealekurantz eta Navas de Tolosarantz. Datozen bi asteetan inguru horretan egingo diren lanek irla moztuko dute, autobusei Aita Moret kaletik datozen errietara pasatzen uzteko. Izan ere, antolaketa berriarekin, Yanguas y Miranda eta Navas de Tolosa arteko tartea, Parlamentuaren ondoan dagoenak, bi norabideak berreskuratuko ditu, nahiz eta hiri-garraioarendako eta bizikletendako mugatua egongo den.

Bake plazatik Sarasate pasealekurantz soilik 1. eta 2. sektoreetako bizilagunek eta zerbitzuetako ibilgailuek (zamalana, zabor-bilketa, etab.) zirkulatu ahal izango dute, baina ezin izango dute aurrera egin Nafarroako Parlamentutik, autobus eta bizikletendako mugatua egongo baita. Yanguas y Miranda kaleko tarte horretan, Navas de Tolosa kalerantz, eskuineko erreia espaloari gehituko zaio, egungo erdiko erreia autobusentzako soilik izango da, eta ezkerrekoetik, erdibitzaitetik gertuen dagoenetik zirkulatu ahal izango dute 1. eta 2. sektoreetako bizilagunen ibilgailuek eta zerbitzuetako ibilgailuek, horretatik bakarrik.

Lizarra kaletik Bake plazarainoko tartean, Yanguas y Miranda kalean egun dauden hiru erriak mantenduko dira.

Iruñean, 2017ko uztailaren 27an